

Prensa oharra

Nota de prensa



Udalak kaleko afariak aztertu ditu eta sustatzaileekin partekatutako konponbideak bilatuko ditu

Gizarte Ekintzak eskatutako azterlan batek hiriko ekimenetan parte hartu dutenen datuak bildu ditu

Donostiako Udalak, Gizarte Ekintza Sailaren bitartez, azterlan bat egin du etxerik gabeko pertsonen elikadura-arretarekin lotutako ekimenei buruz, bai ekimen publikoei buruz, baita herritarren taldeek sustatutakoei buruz ere. Udalaren helburua hirian egiten ari diren jarduerak aztertzea eta hauen ezaugarriak ezagutzea izan da, ekimen horietan parte hartzen duten taldeekin ondorioak partekatzeko eta horien onura jasotzen duten kolektiboei eskaintzen zaien arreta hobetzeko.

Gizarte Ekintza Sailak Lotura Giza Garapenari (LGG) hirian etxegabetasun-egoeran dauden pertsonen elikadura-arreta emateko gizarte-diagnostikoa egiteko eskatu dio. Hala, urtariletik martxora bitartean, LGG bazkariak eta afariak eskaintzen dituzten herritar taldeekin eta arreta hori jasotzen duten pertsonekin landa lana egiteaz arduratu da.

Beste erakunde batzuen (Gurutze Gorria, Caritas, Jatorkin) ekimenen datuak ere jaso dira, baita Udalak berak bultzatutako Otorduak programarenak ere.

LGGk egindako azterlanaren biztanleria-eremua, batez ere, 2022ko otsailean, martxoan eta apirilean, afari bero bat lortzeko boluntarioek gidatutako bi banaketa-puntu nagusietara hurbildu diren pertsonen osatzen dute: Mandasko Dukea eta Konstituzio Plaza.

Guztira, egindako erroldan jasotako 136 pertsonetatik 97 elkarrizketatu dira, hau da, aztertutako talde osoaren % 71,32a.

Elkarrizketatutako pertsonen %100 gizonak dira eta, baita %100a ere, etxegabetasun-egoeran daude. Izan ere, %78,3a hiriko kaleetan bizi da, eta bertan igarotzen du gaua. Nabarmenezkoa da, gainera, adinez gazteak direla: gizonen % 58,76ak 18 eta 29 urte bitartean ditu, eta % 29,90ak 30 eta 44 urte artean.

Prensa oharra

Nota de prensa



Joan etorriko biztanleria

Elkarrizketatutako pertsonen %91,76a Magrebetik dator eta ia erdiak ez du gaztelaniaz hitz egiten. Ehuneko esanguratsu batek (%72) sei hilabete edo gutxiago daramatza Donostian, eta %88ak urtebete baino gutxiago. Beraz, joan etorriko biztanleria edo errotze-sentimendu ahula duena dela ondorioztatu daiteke.

Gutxi gorabehera 2022ko urtarrilean LGGk erroldatutako pertsonen %70 - %75 hirian zeuden 3 hilabete geroago, eta etxegabetasun-egoeran. Gainerako %25a hiritik joana zen, baina berriki iritsi eta hirian jarraitzen zuten beste gazte batzuek ordezkatu zituzten; beraz, afarien onuradunen kopurua ez zen ia aldatu azterlana hasi zenetik hiru hilabetetara.

Elkarrizketatutako pertsonen %70ak fitxa soziala du irekita Gizarte Larrialdietako Udal Zerbitzuetan (GLUZ). Joera hori pixkanaka handitzen joango dela aurreikusten da, Donostian bizitegi-bazterketa egoeran dauden ia pertsona guztiak zerbitzu horretara joaten baitira.

Era berean, eta diagnostikoak ondorioztatzen duenez, substantzien kontsumoa da afarietara joaten diren eta kalean dauden pertsonen egoeraren alderdi kezkarrienetako bat.

Otorduak Programa

Errealitate horren aurrean, eta gizarteratze-eredu integratzaileagoak finkatzeko asmo sendoarekin, Gizarte Ekintza Zerbitzuak Otorduak ekimena indartu du. Otorduak bazterketa larrian dauden pertsona eta familiei zuzendutako elikadura-programa bat da eta, honi esker, beharra duten pertsonak eguerdian otordu bero bat eta ogitarteko bat edo tuper bat eskura dezakete, hiriko ostalaritza-zerbitzuen laguntzari esker.

Otorduak 2021ean hasi zen, 37.500 €-ko inbertsioarekin eta 58 onuradunekin. 2022aren hasieratik gaur arte, programak 116 erabiltzaile ditu eta 83.500 euroko inbertsioa. Batez besteko bertaratze-tasa %63,45ekoa da. 116 erabiltzaile horietatik, 37 ostatua edo logela duen baliabide batean sartu dira.

Gaur egun, 13 ostalaritza-zentrok parte hartzen dute ekimen honetan, eta guztira 61 plaza daude gaituta, horietatik 51 beteta. Beraz, 10 plaza geratzen dira libre eta ez dago inor itxaron-zerrendan.

Otorduak programaren erabiltzaile izateko ez da ezinbestekoa erroldatuta egotea, baina bai errotzea, borondatea eta hirian geratzeko aukerak adieraztea.

Prensa oharra

Nota de prensa



Era berean, beharrezkoa da elikatzen duen beste programa edo baliabide bati lotuta ez egotea.

Gurutze Gorria, Caritas eta Jatorkin

Eguneko gainerako otorduei dagokienez, elkarrizketatutako 10 pertsonatik 8k hainbat lekutan gosaltzen edo bazkaltzen dutela adierazi dute. Era berean, %75ak kaleko afarietara joaten dela aipatu du.

Izan ere, eta diagnostikoak adierazten duen bezala, elkarrizketatutako pertsonen %32ak Gurutze Gorriak emandako gosariak kontsumitzen ditu, %15ak kalean gosaltzen du eta %16ak ez du gosaltzen. Badira, halaber, zehazten ez dutenak (%20), eta Caritasi (%7) edo Jatorkini (%6) esker gosaltzen dutenak –*Jatorkin Tolosaldeko etorkin magrebtarrak integratzeko elkarte da, eta Tolosan eta Donostian du egoitza soziala*–.

Eguerdian, %23,7 Jatorkinera joaten da, eta, bertan, elikatzeaz gain, harremanetarako gune bat bilatzen dute. %16,5ak adierazi du Otorduak programan parte hartzen duten taberna eta jatetxeetan bazkaltzen duela, eta %15ak dio ez duela ordu horretan jaten. Gainera, Gurutze Gorriak eta Caritasek pertsonen % 8,2ren beharrei erantzuten diete.

Pertsonen ia % 75ak egunero afariak jasotzera joaten dela baieztatu du, batez ere Egian eta Alde Zaharrean. %10a astean 3-4 egunetan joaten da. Azkenik, %5ak adierazi du Caritasera oinarrizko elikadura-beharrak asetzerara hurbiltzen dela, eta %3ak Otorduak programako tabernetara.